4. Asimismo, podrán solicitar su paso a la situación de excedencia en la empresa los trabajadores que ejerzan funciones sindicales de ámbito provincial o superior mientras dure el ejercicio de su cargo representativo.

5. El trabajador en excedencia voluntaria conserva solo un derecho preferente al reingreso en las vacantes de igual o similar categoría a la suya que hubiera o se produjeran en la empresa.

6. La situación de excedencia podrá extenderse a otros supuestos colectivamente acordados, con el régimen y los efectos que allí se prevean.

16. Licencias.

1. Matrimonio/pareja de hecho.

1.— 20 días naturales que empezarán a contar el mismo día de la boda o registro de pareja de hecho.

2.— Por matrimonio o registro de pareja de hecho de padres, hijos o hermanos o conviviente con el trabajador 1 día natural. Si la celebración es a más de 200 km de distancia, 1 día natural más.

2. Cambio domicilio habitual.

1.— 1 día por traslado del domicilio habitual. Se debe entregar el justificante de empadronamiento.

3. Fallecimiento.

1.— Fallecimiento del cónyuge, padres/madres e hijas/hijos, 5 días naturales. Cuando con tal motivo el trabajador necesite hacer un desplazamiento de más de 200 km, el plazo será de 2 días naturales más.

EK\CV GAO-I-2026-05861

2.— Neba-arreben eta odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko aurrekoak ez diren aurrekoen eta ondorengoen heriotzagatik, 3 egun natural; egun horietatik gutxienez 2 lanegunak izango dira. Hori dela eta langileak 200 kilometrotik gorako bidaia egin behar badu, epea 2 egunez luzatuko da.

3.— Langilearekin bizi den pertsona edo hirugarren mailako senide baten heriotzagatik, egun natural 1. bizikidea dela zehazteko, nahikoa izango da udal-errolda aurkeztea. Hori dela eta langileak 200 kilometrotik gorako bidaia egin behar badu, epea 2 egunez luzatuko da.

4. Istripua edo gaixotasun larria.

1.— Bost lanegun arteko baimen ordaindua, ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen edo izatezko bikotekidearen odol-ahaidetasunezko ahaideen istripu edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atseden hartzea eskatzen duen ospitaleratzerik gabeko ebakuntza kirurgikoagatik, bai eta aurrekoak ez diren beste pertsona batzuen kasuan ere, betiere langilearekin etxebizitza berean bizi badira eta beharrezkoa badute langilearen benetako zaintza. Bizikidea dela zehazteko, nahikoa izango da udal-errolda aurkeztea.

2.— Odol-ahaidetasunezko 1. mailako kasuetan, ordaindu gabeko 2 egun ere hartu ahal izango dira. Betiere, baldin eta gertaera eragileak irauten jarraitzen badu.

3.— Baimenak lanaldi-erditan hartu ahal izango dira, betiere gertaera eragileak irauten jarraitzen badu.

4.— Iraupen luzeko kasuetan, enpresak eta langileak adostu ahal izango dute baimen horiek hartzeko modua. Ados jarri ezean, egun horiek ondoz ondokoak izango dira.

5. Mediku-kontsultei lotutako orduak.

1.— Familiako medikua: Urtean 20 orduko baimen ordaindua, Gizarte Segurantzako familia-medikuaren kontsultara joateko. Ordu horiek agortutakoan, baimen berreskuragarritzat hartuko da; hau da, baimen ez ordaindua izango da; beraz, berreskuratu egin beharko da. Enpresari ahalik eta lasterren abisatuko zaio, betiere inguruabarrek horretarako aukera ematen badute. Mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da beti.

Senideei medikukontsulta batera laguntzea: Baimen hori seme-alaba adingabeei edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuneko senideei laguntzeko erabili ahal izango da, edo adinagatik, osasunegoeragatik edo proba medikoen ezaugarriengatik laguntza hori ezinbestekoa denean. Laguntza hori eman dela egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da, seme-alabaren edo senidearen datuak jasota. Gizarte Segurantzak ematen duen estalduraren barrukoa izango dela ulertu behar da.

2.— Mediku espezialista: Gizarte Segurantzako mediku espezialistaren kontsultara joateko behar den denbora baino ez da zenbatuko ordaindutako baimenean, betiere kontsultara lanorduetan joan behar badu. Espezialistei egindako kontsulta pribatuak familia-medikuaren 20 orduetan zenbatuko dira. Behar bezala justifikatu behar da, dagokion medikuak edo osasunzerbitzuak emandako ziurtagiri edo txostenaren bidez. Ziurtagiri edo txosten horretan, data eta iraupena adierazi behar dira, bai eta artatutako pertsonaren identifikazioa ere.

— Guraso bakarreko familietan 8 ordu gehiago emango dira.

6. Nahitaezko betebeharrak betetzeko baimenak.

— Aukerak: TAP enpresako langile bat hauteskunde-mahaiko kide izendatzen badute, langile horrek jasoko ditu lanera joan izan balitz jasoko zituzkeen plusak.

— Herri-epaimahaia: TAP enpresako langile bat herri-epaimahaiko kide izendatzen badute, langile horrek jasoko ditu lanera joan izan balitz jasoko zituzkeen plusak.

2.— Fallecimiento de hermanos/as y ascendientes y descendientes distintos de los anteriores hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad 3 días naturales, de los cuales como mínimo 2 serán laborables. Cuando con tal motivo el trabajador necesite hacer un desplazamiento de más de 200 km, el plazo será de 2 días naturales más.

3.— Fallecimiento de conviviente con el trabajador o de familiar de tercer grado, o 1 día natural. A efectos de la determinación de la persona conviviente bastará con el padrón municipal. Cuando con tal motivo el trabajador necesite hacer un desplazamiento de más de 200 km, el plazo será de 1 día natural más.

4. Accidente o enfermad grave.

1.— Permiso retribuido de hasta 5 días hábiles por accidente o enfermedad graves, hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización que precise reposo domiciliario del cónyuge, pareja de hecho o parientes hasta el segundo grado por consanguineidad o afinidad, incluido el familiar consanguíneo de la pareja de hecho, así como de cualquier otra persona distinta de las anteriores, que conviva con la persona trabajadora en el mismo domicilio y que requiera el cuidado efectivo de aquella. A efectos de la determinación de la persona conviviente bastará con el padrón municipal.

2.— En casos de 1.er grado consanguinidad se podrán disponer además de 2 días no retribuidos. Siempre que dure el hecho causante.

3.— Los permisos se podrán disfrutar en medias jornadas, siempre que dure el hecho causante.

4.— En casos de larga duración, empresa y trabajador podrán pactar el disfrute de esos permisos. En caso de no acuerdo los días serían de forma consecutiva.

5. Horas de médico.

1.— Médico de familia: Permiso retribuido de hasta 20 horas anuales para acudir a Consulta del Médico de Familia de la Seguridad Social. Una vez consumidas dichas horas sería un permiso recuperable, es decir, sería un Permiso no retribuido, por lo que se deberá recuperar. Se preavisará a la empresa, con la antelación que sea posible, siempre y cuando las circunstancias lo permitan. Siempre requiere el correspondiente justificante médico.

Acompañamiento a consulta médica a familiares: Este permiso podrá ser empleado para acompañar a hijos/as menores de edad, o familiares hasta el segundo grado de consanguinidad que sean discapacitados/as físicos, psíquicos o sensoriales, o que, por razones de edad, estado de salud o por las características de las pruebas médicas, sea imprescindible dicho acompañamiento. Se debe aportar justificante de la asistencia donde conste los datos del hijo/a o familiar. Se entiende exclusivamente, para la cobertura que presta la Seguridad Social.

2.— Médico especialista: Será Permiso Retribuido, el tiempo estrictamente necesario, para acudir a consulta del médico especialista de la Seguridad Social, siempre y cuando deban tener lugar dentro de la jornada de trabajo. Los/las especialistas de consultas privadas se incluirán dentro de las 20 horas de médico de familia. Requiere justificarse debidamente mediante certificado o informe expedido por el médico o servicio médico correspondiente en el que conste la fecha y duración de esta e identificación de la persona atendida.

— Las familias monoparentales tendrán 8 horas más.

6. Permisos para el cumplimiento de deber inexcusable.

— Elecciones: En los casos en los que un trabajador o trabajadora de TAP sea nombrada parte integrante de la mesa electoral, percibirá los pluses correspondientes que hubiese percibido en caso de haber acudido a trabajar.

— Jurado Popular: En los casos en los que un trabajadora o trabajadora de TAP sea nombrada parte integrante de un jurado popular, percibirá los pluses correspondientes que hubiese percibido en caso de haber acudido a trabajar.

EK\CV GAO-I-2026-05861

— Azterketen ordutegia: TAP enpresako langile batek ikasketa-azterketa baldin badu, eta ikasketa-azterketa hori enpresaren jarduerari lotuta badago, edo enpresak ikasketei etekinak ateratzeko aukera badu, lanera joan izan balitz jasoko zituzkeen plusak jasoko ditu.

7. Amatasuna/aitatasuna.

— Baimen ordaindua, haurra jaio aurreko azterketetarako eta erditzea prestatzeko tekniketarako behar den ezinbesteko denbora.

— Amatasun/aitatasun eskubidea 17 astekoa izango da bi gurasoentzat.

17 aste horietatik:

≡ 6 aste erditu eta berehala hartuko dira nahitaez, lanaldi osoan.

≡ Ordu horiek igarotakoan, guraso bakoitzak nahi duen moduan banatu ahal izango ditu gainerako 11 asteak, lanaldi osoan edo partzialean, ados egonez gero. 17 orduak bloke bakar batean metatuta edo hainbat bloketan behin baino gehiagotan etenda gozatu ahal izango dira, adingabeak nahitaez eten behar duenetik 12 hilabete bete arte.

— Horrez gain, 2024/08/02tik aurrera jaiotako adingabeentzat ordaindutako 2 asteko guraso-baimena dute. Aste horiek aste osoetan har daitezke, adingabeak 8 urte bete arte. Aste hauek aurreko 17ekin batera har daitezke.

— Enpresari 8 egun lehenago abisatuz.

— Desgaitasunik egonez gero, baimena astebetez handituko zaio guraso bakoitzari. Berdin handituko da erditze, adopzio edo harrera anizkoitzak direnean, lehenengotik aurrera; hau da, guraso bakoitzak aste bat gehiago izango du seme edo alaba bakoitzeko, lehenengotik aurrera. Adibidez, bi baldin badira, guraso bakoitzak astebete gehiago izango du; hiru badira, guraso bakoitzak, bi aste gehiago eta abar.

— Erditu den amak lau astez aurrera dezake baimen hori.

— Nazioarteko adopzio edo harreren kasuan, eta gurasoek jaioterrira bidaiatzea behar dutenean, bi hilabete arteko baimena baliatzeko eskubidea onartzen da.

8. Edoskitzaroa.

— Eskubide hori guraso biek balia dezakete. Onuradunek enpresa berean lan egiten badute, baimena aldi berean hartzeko aukera mugatu daiteke, funtzionamendu-arrazoiek justifikatzen badute.

Baimena hartzeko aukerak:

— Lantokitik ordubete faltatzekoa, eta bi zatitan banatzeko aukera dago.

— Lanaldiaren ordu erdia murriztea.

— Lanaldi osoak metatzea.

— Hasiera batean, baimen horren hasierak adingabearen 9 hilabetera artekoa izan behar du, baina 12 hilabetera arte zabal daiteke, baldin eta bi gurasoek baimen hori iraupen eta erregimen berarekin hartzen badute.

9. Jaiotza-inguruko doluagatiko lizentzia.

— Irizpide orokor gisa, haurdunaldiaren 22. astetik aurrera gertatzen diren kasuetan aplikatuko da, eta heriotzarekin parekatuko da. 22 asteko haurdunaldira iritsi gabe ere ebakuntza kirurgikoa badakar, berdin aplikatuko da.

— Normalean, Gizarte Segurantzak aldi baterako ezintasunaldia ezartzen du kasu horietarako. Gertaera eragilearen ondoren aldi baterako ezintasun-egoeran egonez gero, ez da lizentzia ge-

— Horario exámenes: En los casos en los que un trabajadora o trabajadora de TAP tenga examen de los estudios que este cursando, y siempre que esté relacionada con la actividad de la empresa, o esta pueda sacar beneficio de ella, percibirá los pluses correspondientes que hubiese percibido en caso de haber acudido a trabajar.

7. Maternidad/paternidad.

— Permiso retribuido por el tiempo indispensable para la realización de exámenes prenatales y técnicas de preparación al parto.

— El derecho de maternidad/paternidad, para ambos progenitores, será de 17 semanas.

De esas 17 semanas:

≡ 6 semanas se disfrutarán obligatoriamente inmediatamente después del parto y a tiempo completo.

≡ Transcurridas éstas cada progenitor/a podrá distribuir las 11 semanas restantes a su voluntad, a tiempo completo o parcial, si hay acuerdo. Las 17 se podrán disfrutar acumuladas en 1 solo bloque o interrumpidas varias veces en distintos bloques desde la suspensión obligatoria hasta los 12 meses del/la menor.

— Adicionalmente, para los menores nacidos a partir del 02/08/2024 se dispone de 2 semanas retribuidas de permiso parental que se pueden disfrutar en semanas enteras hasta que cumpla 8 años el/la menor. Estas semanas se pueden disfrutar junto a las 17 anteriores.

— Avisando a la empresa con 8 días de antelación.

— En caso de discapacidad, el permiso se ampliará en una semana, 1 para cada progenitor/a. Se ampliará de igual manera en caso de parto/adopción/acogimiento múltiple, a partir del/la primero/a, es decir, cada progenitor/a tendrá una semana más por cada hijo/a a partir del/la primero/a (ej.: si son dos, una semana más cada uno/a, si son tres dos semanas más cada uno/a...).

— La madre que haya dado a luz puede anticipar el disfrute de este permiso 4 semanas.

— En los casos de adopción o acogimiento internacional, cuando sea necesario el desplazamiento previo de los progenitores al país de origen del adoptado, se tendrá derecho, además, a un permiso de hasta dos meses de duración.

8. Lactancia.

— Es un derecho que pueden disfrutar ambos/as progenitores/as. En el caso de las personas beneficiarias de la misma empresa, existe la posibilidad de limitar el disfrute simultáneo por causas justificadas de funcionamiento.

Modalidades de disfrute:

— Una hora de ausencia, pudiendo dividirla en dos fracciones.

— Reducción de jornada en media hora.

— Acumulación por jornadas completas.

— En un principio el inicio de este permiso debe ser hasta los 9 meses del/la menor, aunque puede extenderte hasta los 12 meses siempre y cuando ambos/as progenitores/as disfruten del permiso con la misma duración y régimen.

9. Licencia por duelo perinatal.

— Como criterio general se aplicará para casos que diesen a partir de la semana 22 de gestación, y se equipararа a fallecimiento. Si conllevara intervención quirúrgica aun no habiendo llegado a 22 semanas de gestación aplicara de igual forma.

— Habitualmente la SS establece un periodo de IT para estos casos. En caso de estar en situación de IT tras el hecho causante, no se disfrutará de licencia adicional, pero se complementará

EK\CV GAO-I-2026-05861

higarririk hartuko, baina ABE hori % 100ean osatuko da, murrizketa ekonomikorik ez izateko eta ordaindutako lizentzia batekin parekatzeko.

17. Deskonexio digitala.

Tele Apostuak enpresan lan egiten dutenek lan-ordutegitik kanpo deskonexio digitalerako eskubidea dute, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 88. artikuluan ezarritako baldintzetan (RCL 2018, 1629). Deskonexioa bermatzeko enpresak duen betebeharrak berekin dakar atsedenaldietan enpresako eta laneko komunikazio-bitarteko teknologikoen erabilera mugatzea, eta errespetatu beharko ditu lanaldiaren gehieneko iraupena eta aplikatu beharreko lege- edo hitzarmen-araudian lanaldiari dagokionez ezarritako edozein muga eta neurri.

Tele Apostuak enpresan lan egiten duten pertsona guztiek deskonexio digitalerako eskubidea dute. Lan-egutegiak eta ordutegi zehatzak ezarri dira horretarako. Hala ere, lan jarduera mota kontuan hartuta, eta inguruabar kritikoak gertatzen badira, edo enpresak kalte larriak hartzeko arriskua dagoenean, lanorduetatik kanpo ere elkarreragin ahalko da.

18. Diziplina-araubidea.

1. Faltak.

Langileek enpresetan egin ditzaketen ekintza edo ez-egite zigorgarriak arintzat, astuntzat edo oso astuntzat hartuko dira, nolakoak diren eta egoeraren arabera:

1.– Falta arinak:

Hauek falta arintzat hartuko dira:

a. Lanen bat egitean, deskuiduz jardun, akatsen bat izan edo atzerapen azaldu ezinak izatea.

b. Lanera bertaratzean puntualtasun-falta batetik hirura bitartean egitea –hogeita hamar minutu baino gutxiagoko atzerapenarekin– hilabeteko epean. Atzerapen horrek, langilearen betebehar jakin bat dela-eta, enpresak langile horri emandako lanean ondorio larririk eragiten badu, falta hori astuntzat hartuko da.

c. Arrazoi justifikatua izanik, aldez aurretik ez jakinaraztea lanpostura ez dela joango, baldin eta ez bada frogatzen abisatzea ezinezkoa zela.

d. Dagokion garaian baja ez aurkeztea, justifikatutako arrazoi batengatik lanera ez etortzean.

e. Egiaztatutako arrazoirik gabe lana uztea, denbora laburrerako izan bada ere.

f. Materiala zaintzean deskuidu txikiak izatea.

g. Jendea behar bezala eta egoki ez artatzea.

h. Etxebizitzaz aldatu izana enpresari ez jakinaraztea.

i. Enpresaren barruan lankideekin eztabaidak izatea, aurrean lekukorik gabe.

j. Egun batean lanera ez joatea, baimenik eduki gabe edo arrazoia azaldu gabe.

2.– Falta astunak:

Hauek izango dira falta astunak:

a. Hilabetean hiru aldiz baino gehiagotan eta hamar aldiz baino gutxiagotan berandu iristea, justifikatutako arrazoirik gabe.

b. Hilean bi egunetan lanera ez joatea arrazoi justifikaturik gabe, salbu eta aldez aurretik jakinarazten bada, eta enpresari kalte larririk eragiten ez badio.

c. Laneko orduetan, jokoan edo antzekoetan aritzea, horiek edozein izanik ere.

d. Gaixotasuna edo istripua simulatzea.

esta IT al 100 % para no tener merma económica y equipararla a una licencia retribuida.

17. Desconexión digital.

Las personas que trabajan en Tele Apostuak, tienen derecho a la desconexión digital fuera de su horario de trabajo en los términos establecidos en el artículo 88 de la Ley Orgánica 3/2018 (RCL 2018, 1629), de 5 de diciembre. El deber empresarial de garantizar la desconexión conlleva una limitación del uso de los medios tecnológicos de comunicación empresarial y de trabajo durante los periodos de descanso, así como el respeto a la duración máxima de la jornada y a cualesquiera límites y precauciones en materia de jornada que dispongan la normativa legal o convencional aplicables.

Todas las personas trabajadoras de Tele Apostuak tienen derecho a la desconexión digital. Para ello hay fijados calendarios de trabajo y horarios detallados. No obstante, dada la actividad en la que trabajamos y ante circunstancias críticas o que pudiesen causar graves perjuicios a la empresa, se podrá interactuar fuera de horas de trabajo.

18. Régimen disciplinario.

1. Faltas.

Las acciones u omisiones punibles en que incurran los trabajadores en las Empresas se clasificarán, según su índole y circunstancias que concurran, en leves, graves y muy graves:

1.– Faltas leves:

Se considerarán faltas leves las siguientes:

a. Las de descuido, error o demora inexplicable en la ejecución de cualquier trabajo.

b. De una a tres faltas de puntualidad en la asistencia al trabajo durante el período de un mes, inferiores a treinta minutos, siempre que de estos retrasos no se deriven, por la función especial del trabajador, graves perjuicios para el trabajo que la Empresa le tenga encomendado, en cuyo caso se calificará de falta grave.

c. La no comunicación con la antelación debida de su falta al puesto de trabajo por causa justificada, a no ser que se pruebe la imposibilidad de efectuarlo.

d. No cursar en tiempo oportuno, la baja correspondiente cuando se falte al trabajo por motivo justificado, a no ser que se.

e. El abandono sin causa justificada del trabajo, aunque sea por breve tiempo.

f. Pequeños descuidos en la conservación del material.

g. No atender al público con la corrección y diligencia debidas.

h. No comunicar a la Empresa los cambios de domicilio.

i. Las discusiones con los compañeros de trabajo dentro de las dependencias de la Empresa, siempre que no sea en presencia del público.

j. Faltar un día al trabajo sin la debida autorización o causa justificada.

2.– Faltas graves:

Tendrán la consideración de faltas graves, las siguientes:

a. Más de tres y menos de diez faltas de puntualidad en el transcurso de un mes sin causa justificada.

b. Faltar al trabajo dos días al mes sin que exista causa justificada; salvo que preavise y no ocasione perjuicio grave a la empresa.

c. Entregarse a juegos o distracciones, cualesquiera que sean, estando de servicio.

d. La simulación de enfermedad o accidente.

EK\CV GAO-I-2026-05861

e. Ez betetzea enpresak nahiz enpresak ordena hierarkikoan eskuordetutako pertsonek zuzendaritza-ahalmena gauzatzean eman ohi dituzten aginduak eta jarraibideak.

f. Beste langile bat lanean dagoenaren itxura egitea, haren ordez fitxatuz edo sinatuz.

g. Jendeari errespetua edo begirunea nabarmen galtzea.

h. Lanaldian lan partikularretan aritzea horretarako behar den baimenik izan gabe, eta enpresaren erremintak edo materialak norbere gauzetarako erabiltzea.

i. Jendaurrean lankideekin eztabaida gogaikarriak izatea.

j. Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 25. artikuluan jasotakoak.

Berrerortze ondorioetarako, falta astunengatiko zehapenak zehapena ezarri eta sei hilabetera deuseztatutzat joko dira.

3.— Falta oso astunak:

Hauek dira falta oso astunak:

a. Sei hilabetean hamar alditan baino gehiagotan eta urtebetean hogei alditan baino gehiagotan garaiz ez iristea, inolako justifikaziorik gabe.

b. Lanera hiru egunetan ez agertzea, arrazoirik gabe, hilabete batean.

c. Lanera mozkortuta edo estupefazienteen eraginpean joatea, lanean eragin kaltegarria sortzen duenean.

d. Agindutako lanetan iruzur egitea, leialtasun ezaz jokatzea edo konfiantzaz abusatzea, baita beste lankideekiko edo enpresaren zerbitzurako edozein pertsonarekiko tratuari edo haren lanari dagokionez ere.

e. Publikoari, gainerako langileei edo enpresari ebastea, lapurtzea edo dirua bidegabe erabiltzea.

f. Lanera mozkortuta edo estupefazienteen eraginpean joatea, lanean eragin kaltegarria sortzen duenean.

g. Enpresak bakarrik ezagutu beharreko gutunen edo agirien sekretua haustea.

h. Enpresariari, bere ordezkariei, langileei eta jendeari oro har errespetu eta begirune falta edo hitzezko eta egintzazko tratu txarrak ematea.

i. Enpresako materialak, lanabesak, erremintak, aparatuak, instalazioak, eraikinak eta tresnak desagerraraztea, erabilezin bihurtzea edo hondatzea.

j. Izaera sexualeko irain fisiko edo hitzezkoen bidez, andrazko edo gizonezkoen intimitate eta duintasunerako errespetua urratzea dakarren jokabide edo portaera oro, laneko eremuan. Jokabide edo portaera hori posizio hierarkikoaz baliatuz gauzatzen bada, inguruabar astungarritzat hartuko da.

k. Joko-partiden datuak faltsutzea.

l. Seihileko berean falta astun bat baino gehiago egitea, zehapena tarteko dela.

m. Ohiko lan-errendimendua nahita eta etengabe gutxitzea.

n. Adingabeei baimena ematea aretoetan sartzeko.

o. Drogak enpresaren lokaletan manipulatzea edo saltzea.

p. Langileek, beren kabuz edo hirugarrenen bidez, eskainitako edo merkaturatutako jokoetan parte hartzea.

e. El incumplimiento de las órdenes e instrucciones de la empresa, o personal delegado en el ámbito jerárquico de la misma y en el ejercicio regular de sus facultades directivas.

f. Simular la presencia de otro trabajador, fichando o firmando por él.

g. Falta notoria de respeto o consideración al público.

h. Realizar sin el oportuno permiso, trabajos particulares durante la jornada, así como emplear para uso propio, herramientas o materiales de la Empresa.

i. Discusiones molestas con los compañeros de trabajo en presencia del público.

j. Aquellas recogidas en el art. 25 de la Ley 4/1991 de 8 de noviembre reguladora del juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las sanciones por falta grave se cancelarán a efectos de posible reincidencia transcurridos seis meses desde su imposición.

3.— Faltas muy graves:

Son faltas muy graves las siguientes:

a. Más de diez faltas no justificadas de puntualidad cometidas en un período de seis meses o veinte en un año.

b. Faltar tres días al trabajo durante un mes, sin que exista causa justificada.

c. Acudir habitualmente al trabajo en estado de embriaguez o bajo los efectos de estupefacientes cuando afecte negativamente al trabajo.

d. El fraude, deslealtad y abuso de confianza en las gestiones encomendadas, así como en el trato con los otros trabajadores o trabajadoras o cualquiera otra persona al servicio de la empresa en relación de trabajo con ésta.

e. El hurto, robo o malversación, tanto al público como a los demás trabajadores o a la empresa, dentro de la misma.

f. Acudir habitualmente al trabajo en estado de embriaguez o bajo los efectos de estupefacientes cuando afecte negativamente al trabajo.

g. Violar el secreto de la correspondencia o documentos reservados a la Empresa.

h. Malos tratos de palabra u obra, y falta grave al respeto y consideración al empresario, personas delegadas por éste, así como demás trabajadores o trabajadoras y público en general.

i. Hacer desaparecer, inutilizar o causar desperfectos en materiales útiles, herramientas, aparatos, instalaciones, edificios y enseres de la empresa.

j. Todo comportamiento o conducta, en el ámbito laboral, que atente al respeto de la intimidad y dignidad de la mujer o el hombre mediante ofensa, física o verbal, de carácter sexual. Si tal conducta o comportamiento se lleva a cabo prevaliéndose de una posición de jerárquica supondrá una circunstancia agravante de aquélla.

k. El falseamiento de datos de las partidas de juego.

l. La reincidencia en falta grave, dentro de un semestre, siempre que haya sido objeto de sanción.

m. La disminución voluntaria y continuada en el rendimiento normal de la labor.

n. Permitir la entrada de menores a las salas.

o. La manipulación o venta de drogas en los locales de la empresa.

p. La participación por las personas trabajadoras, sea por sí mismas o a través de terceros, en juegos ofertados o comercializados.

EK\CV GAO-I-2026-05861

q. Langile batek debekatutakoen zerrendan sartutako pertsona batek zuzenean edo hirugarren pertsonen bidez parte hartzea.

r. Zuzendariek eta enplegatuek, bai eta ezkontideek, aurreko ahaideek eta 1. mailako ondorengoek ere, maileguak edota konturako dirua ematea jokalariei edota apustuak egiten dituztenei.

s. Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 25. artikuluan jasotakoak.

2. Zehapenak.

Egindako gertakarien larritasunaren eta inguruabarren arabera, eta langileen ordezkariei entzun ondoren, enpresek zigor hauek ezar ditzakete:

1.— Falta arinak:

a. Hitzezko kargu-hartzea.

b. Idatziz kargu-hartzea.

2.— Falta astunak:

a. Idatziz kargu-hartzea.

b. Enplegu eta soldata gabe uztea hiru egunetik zazpira bitartean.

3.— Falta oso astunak:

a. Enplegua eta soldata kentzea, hogeita bat egunetik hirurogei egunera.

b. Kaleratze diziplinatua.

Enpresak langile bati falta astun edo oso astun bat ezarri nahi badio, aldez aurretik eta gutxienez 72 orduko epean, Enpresa Batzordeari jakinaraziko dio, eta horrek dagokion txostena egin ahal izango du. Baldintza hori betetzen ez bada, zehapena deuseza izango da.

Langileak eskubidea izango du, edozein zehapen jasotzen duenean, Enpresa Batzordeko ordezkari batekin egoteko.

19. Batzorde paritarioa.

Hitzarmen hau interpretatzeko, zaintzeko eta betetzen den kontrolatzeko batzorde paritario bat eratuko da. Batzordea langileen hiru ordezkarik eta enpresaren hiru ordezkarik osatuko dute.

20. Gatazkak konpontzea.

Hitzarmen Kolektibo hau sinatu duten alderdiek beharrezkotzat jotzen dute gatazka kolektiboak konpontzeko borondatezko prozedurak ezartzea, Batzorde Paritarioaren bidea akordiorik gabe amaitu ondoren. Adostu egiten da, beste jarduketa bat egin aurretik, bi alderdiek Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordiora joko dutela.

21. Berdintasun-politikak eta berdintasuna lantokian.

Hitzarmen kolektibo hau sinatzen duten aldeek adierazten dute lanean tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatu nahi dutela ondorio guztietarako, eta ez dela onartuko diskriminaziorik sexuagatik, egoera zibilagatik, adinagatik, arraza edo etniagatik, erlijio edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, sexu-joeragatik, ideia politikoengatik eta abar.

Arreta berezia jarriko da gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna betetzeari dagokionez: enplegua lortzea, lanbide-sustapena, prestakuntza, egonkortasuna enpleguan, eta soldata-berdintasuna balio bereko lanetan.

Hitzarmen kolektibo hau sinatzen duten pertsonek konpromisoa hartzen dute politikak eta balioak ezartzeko lan egiteko, erakundearen maila guztietan arau eta balio argiak banatuta, jazar-

q. La participación como jugadores directa o por medio de terceras personas incluidas por trabajador en la lista de prohibidos.

r. La concesión de préstamos o dinero a cuenta a las personas jugadoras o apostantes por parte de directivos y empleados, así como los cónyuges, ascendientes y descendientes de 1.er grado.

s. Aquellas recogidas en el art. 25 de la Ley 4/1991 de 8 de noviembre reguladora del juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Sanciones.

Las sanciones que las empresas pueden aplicar, según la gravedad y circunstancia de los hechos cometidos, oída la representación de los trabajadores y trabajadoras, serán las siguientes:

1.— Faltas leves:

a. Amonestación verbal.

b. Amonestación por escrito.

2.— Faltas graves:

a. Amonestación por escrito.

b. Suspensión de empleo y sueldo de tres a siete días.

3.— Faltas muy graves:

a. Suspensión de empleo y sueldo de ocho a sesenta días.

b. Despido disciplinario.

En las situaciones de que la empresa pretenda sancionar a un trabajador con una falta grave o como muy grave, con carácter previo y con un plazo mínimo de 72 horas lo comunicará al Comité de Empresa, el cual podrá emitir el correspondiente informe. El incumplimiento de este precepto conllevará la nulidad de la sanción.

El trabajador tendrá derecho a que en el momento le sea entregada cualquier tipo de sanción estar acompañado por un representante del comité de empresa.

19. Comisión paritaria.

Se acuerda constituir una Comisión Paritaria como órgano de interpretación y vigilancia del cumplimiento del presente Convenio Colectivo. La comisión estará formada por tres personas de la parte social y tres personas en representación de la empresa.

20. Solución de conflictos.

Las partes signatarias del presente Convenio Colectivo estiman necesario establecer procedimientos voluntarios de solución de los conflictos de carácter colectivo, una vez agotada la vía de la Comisión Paritaria sin acuerdo. Se acuerda que, con carácter previo a otra actuación, ambas partes acudirán al Preco.

21. Políticas de igualdad e igualdad en el trabajo.

Las partes firmantes de este Convenio Colectivo declaran su voluntad de respetar el principio de igualdad de trato en el trabajo a todos los efectos, no admitiéndose discriminaciones por razón de sexo, estado civil, edad, raza o etnia, religión, o convicciones, discapacidad, orientación sexual, ideas políticas, etc.

Se pondrá especial atención en cuanto al cumplimiento de la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres en el acceso al empleo, promoción profesional, la formación la estabilidad en el empleo y la igualdad salarial en trabajaos de igual valor.

Las personas firmantes del presente Convenio Colectivo se comprometen a trabajar en implantación de políticas y valores, con distribución de normas y valores claros en todos los niveles

EK\CV GAO-I-2026-05861

penik gabeko lan-inguruneak bermatzeko eta mantentzeko, langilearen duintasuna errespetatuta eta pertsonen garapena erraztuta.

Horregatik, konpromisoa adierazten dute lan-ingurune onak mantentzeko, jazarpen-portaerak prebenitzeko eta gertatzen diren kasuak jazartzeko eta konpontzeko.

Aurrekoa gauzatzeko, 2024-2027 Berdintasun Plana negoziatu da. Prestakuntza-ekintza zehatzak ezarri dira, eta Berdintasun Batzordeak horien guztien jarraipena egingo du.

Zehazki, erabaki da Berdintasun Batzordeak 2024an prestakuntza jasotzea arlo hauetan:

— Lan-eremuan berdintasunari buruzko esparru kontzeptual bat eskaintzea, langileei bereizten laguntzeko desberdinkeria zein lan-eremutan den agerikoagoa.

— Erakundean emakumeen aurkako balizko diskriminazio-kasuei aurre egiteko tresnak eskuratzea.

— Ezagutzea sexu-jazarpenaren eta generoan oinarritutako jazarpenaren adierazpenak eta abian jar daitezkeen prebentzio- eta arreta-politikak.

— Genero-ikuspegia enpresako zein kudeaketaren esparrutan behar den gehien ezagutzea eta identifikatzea.

— Balizko erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzea.

TAPen sexu-jazarpeneko eta/edo sexu-arrazoiengatiko protokoloa dago. Bertan, jazarpen-egoera bat gertatuz gero egin beharreko urrats guztiak zehazten dira. Gaur egun, Sharepoint/Menu Principal/Protokoloen intraneteko TAPeko langile guztien eskura dago.

Urriaren 8ko 1026/2024 Errege Dekretuari dagokionez (enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ez egiteko neurrien planifikatutako multzoa garatzen duena), enpresaren eta langileen legezko ordezkaritzaren artean negoziatutako eta adostutako protokolo hau dago eskuragarri intraneten, Sharepoint/Menu Principal/Protokoloetan.

22. Hitzarmen kolektiboa salatzea.

Hitzarmen Kolektibo honen amaiera automatikoki iragarriko da 2030eko azaroaren 1ean, eta data horretatik aurrera hasi ahal izango dira hitzarmen hau ordeztuko duen hurrengo hitzarmen kolektiborako negoziazioak.

de la organización, que garanticen y mantengas entornos laborales libres de acoso donde se respete la dignidad de la persona trabajadora y se facilite el desarrollo de las personas.

Por ello, manifiestan su compromiso por mantener entornos laborales positivos, prevenir comportamientos de acoso y perseguir y solucionar aquellos casos que se produzcan.

Para llevar adelante lo reseñado se ha negociado el Plan de Igualdad 2024-2027, con acciones formativas concretas y un seguimiento por parte de la Comisión de Igualdad de todas ellas.

Se acuerda concretamente que la Comisión de Igualdad se formará en:

— Ofrecer un marco conceptual sobre la igualdad en el ámbito laboral que permita a las y los trabajadores Identificar ámbitos de trabajo donde la desigualdad es más visible.

— Adquirir herramientas para el abordaje de casos de discriminación hacia las mujeres que se hayan podido detectar en la entidad.

— Conocer las diversas manifestaciones del acoso sexual y por razón de género y las políticas de prevención y atención que se pueden poner en marcha.

— Conocer e identificar los ámbitos de la gestión organizacional donde es más necesaria la incorporación de la perspectiva de género.

— Profundizar en posibles respuestas, alternativas y estrategias.

En TAP existe el Protocolo de acoso sexual y/o por razón de sexo. En el mismo se definen todos los pasos a llevar en caso de darse una circunstancia de Acoso. Actualmente está al alcance de todas las personas trabajadoras de TAP en la intranet en Sharepoint/Menú Principal/Protocolos.

En relación con el Real Decreto 1026/2024 de 8 de octubre, por el que se desarrolla el conjunto planificado de las Medidas para la igualdad y no discriminación de las personas LGTBI en las empresas, existe este protocolo negociado y acordado entre la empresa y la representación legal de trabajadores y está disponible también en la intranet en Sharepoint/Menú Principal/Protocolos.

22. Denuncia del convenio colectivo.

El presente Convenio Colectivo quedara automáticamente denunciado el 1 de noviembre de 2030, pudiéndose iniciar desde esa fecha las negociaciones para el siguiente Convenio Colectivo que sustituya al presente.

EK\CV GAO-I-2026-05861